

Topaketa esanguratsuak: adinekoak eta askatasunaz gabetutako pertsonak



Gizarte eta osasun
zerbitzuak



Partaidetza eta
gizarte ehuna



Errespetua eta
gizarteratzea

Topaketa esanguratsuak: adinekoak eta askatasunaz gabetutako pertsonak

Proiektu hau uste sendo batetik sortu da: pertsona orok du entzuna, aitortua eta onartua izateko eskubidea. Duela urte batzuetatik hona, egoitzak adinekoen eta askatasunaz gabetutako pertsonen arteko topaguneak sustatu ditu, enpatian, berdintasunean eta errespetuan oinarritutako giza trukerako guneak irekiz.

PROGRAMAREN EGITURA

Programa txandakako bi formatutan gauzatzen da:

- Askatasunaz gabetutako pertsonen bisitak egoitzara (ohiko formatua). Bi urtean behin errepikatzen den bisita, maiatzean edo ekainean egiten dena.
- Adinekoen bisitak espetxera, baldintzek aukera eskaintzen badute.

Topaketa bakoitza fase hauetan antolatzen da:

Terapeuta okupazionalaren eta espetxeko medikuaren aurretiazko jakinarazpena. Jardueraren arduradunen arteko komunikazioa, informazio orokorra finkatzeko: data, topaketaren helburua (Gabonetako postalen trukea edo udaberriko lore trukea) eta parte hartuko duten pertsonak (postalen kasuan, zerrenda bat egiten da, nork nori idazten dion zehazteko; loreen kasuan, parte hartzaileen kopurua adierazten da).

Jarduera sortzea. Zentro bakoitzean, lehenengo fasean finkatutako eskulana egiten hasten dira.

Trukea. Terapeuta okupazionalak ongi-etorria egiten die bisitariei, eta solairuz solairu laguntzen die, trukea egiteko, aldezturik aurkezpen dinamika bat eta elkarri entzuteko eremu bat sortuz.

Edo, bestela, medikuak ongietorria egiten die bisitariei, eta erizaintzako moduluko bisita gelara laguntzen die, aurreko dinamika berean oinarritutako trukea egiteko. Gainera, Zaballako parte hartzaileek egindako txokolate beroa eta opilak partekatzen dituzte.

Topaketa guztietan, bisitariak opari bat eramaten dute (guztiak sinatutako postal bat, eskuz egindako lore sorta bat eta abar). Opariok urte osoan izaten dira gogoan; azkena, adibidez, Zaballan egindako loreontzi bat da, gure eukaristian duguna.

Trukea baloratzea. Esperientzia ebaluatzeko, Zaballako taldea eta egoitzako profesionalen taldea biltzen dira, mokadutxo bat jateko eta egindako dinamikari buruz eta sor daitekeen edozein kezkarari edo proposameneri buruz hurbiletik eta informaltasunez hitz egiteko.

Era berean, gure aldetik, ondorengo egunetan, egoiliarrekin tertuliak sortzen ditugu, asebetetze maila ebaluatu eta edozein kezka edo proposamen entzuteko.

Horrek guztiak lotura estua sor dezake. Horren adibide argia da, Gabonetako bisitetako baten ondoren Zaballako preso batek baimena eskatu zuela postalen trukean tokatu zitzaion emakumeari eskutitzak bidaltzeko. Eta, horrela, emakumeak ilusio handiz jaso zituen eskutitz horiek.

1. Erakunde sustatzaileak

Arabako ZABALLAko espetxea eta PURÍSIMA CONCEPCIÓN egoitza.

2. Erakunde motak

Pribatua eta publikoa

3. Xede taldea

Adineko egoiliarrek, askatasunaz gabetutako pertsonak eta egoitzako talde profesionala.

4. Lurralde eremua

Euskadi

5. Etiketak

Belaunaldien arteko topaketa, adinekoak, askatasunaz gabetutako pertsonak, gizarteratzea, gizarte inklusioa, entzute aktiboa, ingurune lagunkoia, gizarte eraldaketa, giza duintasuna, genero ikuspegia, aniztasuna, giza lotura

6. Helburuak

Deskribatzen dugun esperientzia, Adinekoekiko Ingurune Lagunkoien Mugimenduaren printzipioekin lerrokatzeaz gain, ekintza eraldatzaile eta belaunaldien arteko baterantz hedatzen da, non errespetuak, entzute aktiboak eta gizarteratzeak zentzu sakona hartzen duten.

Errespetuaz eta gizarteratzeaz gain, proiektuak OMEren esparruko arlo hauek ere ukitzen ditu:

- Parte hartze soziala: ohiz kanpoko jarduera esanguratsuak sustatzen ditu.
- Komunitatearen babesa: inguru hurbilaz kanpoko loturak sortzen ditu.
- Komunikazioa eta informazioa: mintzatzeko eremu seguru bat sortzen da.

HELBURU OROKORRAK

- Gizarteratzea eta elkarrekiko errespetua sustatzea adinekoen eta askatasunaz gabetutako pertsonen artean, topaketa esanguratsuen bidez.
- Adinekoen parte hartze aktiboa sustatzea haien esperientzia eta jakintza baloratzen duten gizarte jardueretan.
- Enpatian eta ikaskuntza partekatuan oinarritutako giza elkarriketarako eta belaunaldien arteko elkarriketarako eremuak bultzatzea.
- Talde profesionala eta parte hartzaileak sensibilizatzea, besteekin elkartzeak duen aberastasunaz eta hazteko ematen duen aukeraz.

BERARIAZKO HELBURUAK

- Adinekoen adierazpen pertsonal eta emozionala bultzatzea, askatasunaz gabetutako pertsonekin errespetuz hitz egiteko eremuen bidez.
- Elkarriketarako testuinguru seguruak sortzea, non bi aldeek beren bizitzako historiak partekatu ahal izango dituzten, inork epaitu gabe eta aurreiritzirik gabe.
- Talde profesionalaren zeregin aktiboa sendotzea, gizarteratzea eta laguntza emozionala sustatzen duten jarduera komunitarioetan.
- Adineko egoiliarrengan hautemandako gizarte isolamendua murrizten laguntzea. Elkarrenganako errespetuaren, duintasunaren eta bestearen aitopenen garrantziari buruzko kontzientzia sustatzea, hainbat bizi esperientziatik.

- Partekatutako esperientzia erregistratu eta aztertzea, etorkizuneko topaketetan esku hartzea hobetzeko eta praktika erreplikatzeko.
- Espetxeko egiturazko baldintzek aukera ematen duten neurrian, genero ikuspegia txertatzen dela zaintzea.

7. Metodologia

Metodologiaren abiapuntua pertsonarengan oinarritutako esku hartze psikosozialaren ikuspegi bat da, gerontologiaren esparruko ebidentziek babestua, eta justizia errestitutiboaren printzipioekin konbinatua, zeinak elkarriketaren balioa sustatzen baitu eraldaketa tresna gisa. Gainera, zahartze aktiboko eta parte hartze sozialeko praktiketan oinarritzen da, OMEk adinekoentzako ingurune lagunkoiei buruz emandako gomendioekin bat etorritik.

Ereduak teknika hauek erabiltzen ditu:

Bizi historiak borondatez aurkeztea, identitate narratiboa sustatzeko.

Taldeko profesionalak egindako entzute aktibo gidatua.

Langileen presentzia egituratua, giro segurua eta errespetuzkoa bermatzen duena, parte hartzaileen protagonismoa oztopatu gabe.

8. Izero berritzaileak

Programa hau proposamen berritzailea da adinekoekiko lagunkoitasunaren esparruan, ohikoa ez den ikuspegi bat txertatzen baitu: askatasunaz gabetutako pertsonekin topaketa gizatiar bat egitea, elkarrekiko errespetuaren, entzutearen eta aitorpenaren ikuspegitik.

Topaketa hau Gizarea Ereduarekin dugun konpromisoaren adierazpen naturala besterik ez da. Eredu hori harremanetan oinarritutako arretan (HOAn) oinarritzen da, zeina pertsonengan ardaztutako arretaren (PAAren) esparru zabalagoaren parte baita.

Ikuspegi horretatik, osotasuna aintzat hartuz egiten dugu lan egoiliarrekin, haien familiarekin, Karitatearen Alabekin eta boluntarioekin, talde profesionalarekin, eta komunitatearekin, ongizatea loturetatik eraikitzen dela ulertzen baitugu.

Pertsona bakoitzaren bizitza inguratzen eta sostengatzen duen gizarte ehunari egoitza irekitzeko irrikatik sortu zen, hain zuzen ere, Zaballako espetxearekin duela urte batzuk abiarazitako harremana. Lotura hori urrats bat gehiago da gure ibilbidean: zaintza indibidualetik harago joatea, komunitatearekin, gizakiekin eta eraldaketarekin konektatzeko.

Ekimenak hobekuntza eta aurrerapen garrantzitsuak sortzen ditu lagunkoitasuna jorratzeko orduan:

- Elkarrizketa eraldatzailerako eremuak sortzen ditu, non adinekoek konpainia, entzutea eta bizi jakinduria eskaintzen eta jasotzen duten.
- Komunitate lagunkoiaren kontzeptua zabaltzen du, tradizionalak ez diren inguruneak txertatuz (espetxea, adibidez) eta segregazioa eta estigma hausten dituzten loturak sortuz.
- Emozionaltasunean, elkarrekikotasunean eta hierarkiarik ezean oinarritutako metodologia sustatzen du. Bi aldeak protagonista aktiboak eta aintzatetsiak dira, bizi duten egoeragatik beharrean, direnagatik.
- Talde profesionalaren zeregina aktibatzen du, topaketa esanguratsuen bideratzaile diren aldetik, eta prestakuntza, laguntza eta jarraipena txertatzen ditu, adinekoen zaintza osoan.
- Justizia errestitutiboaren eta erreparazio sinbolikoaren ikuspegia txertatzen

Oro har, ekintza erreplikagarri, sentikor eta erabat gizatiarra da, lagunkoitasunaren kontzeptuaren mugak zabaltzen dituen, erosotasun fisikotik edo irisgarritasunetik haratago joan eta pertsonaren erabateko aintzatespena bilatuz, dimentsio etiko, emozional eta harremanezkoan.